

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak eta 'la Caixa'-k hitzarmena sinatu dute ingurumeneko 19 proiektu gauzatzeko eta 100 lanpostu sortzeko

2006. urtetik, finantza-erakundeak 7 milioi euro jarri du hitzarmen horretan, 65 proiektu egin dira eta 380 lanpostu sortu

Jueves, 12 de abril de 2012

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilari Lourdes Goicoecheak eta Nafarroa, Aragoi eta Errioxako "la Caixa"-ko ordezkari nagusi Raúl Marqueta-k *Naturguneen eta gizarteratzeko programa* berri dute gaur goizean. Nafarroako Gobernuak eta finantza-erakunde horrek 2006 tik sinatzen dute hitzarmen hori.

La [Obra Social "la Caixa"](#) ha dotado

["la Caixa" Gizarte](#)

[Ekintza](#) 2012rako 1.100.000 euro jarri ditu programa horretarako, eta diru horrekin Nafarroako Gobernuak 19 proiektu gauzatu ditu Nafarroako naturguneetan. Hori egiteko, ehun bat lanpostu sortzea aurreikusita dago, kopuru horren zati handiena lan-bazterketako arriskuan dauden pertsonentzat izanik; izan ere, programaren helburua ezindu fisiko, psikiko eta lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten beste pertsona-talde batzuen gizarteratzea da. Xede horretarako, [Gestión Ambiental de Navarra SA](#) enpresa publikoak erakundeak azpikontratatu ditu helburu sozial horrekin.

19 proiektuak bost taldetan banatzen dira helburuaren arabera. Zazpi proiektu bazoetan eta baso-sistemetan hobekuntzak egingo dituzte Arzoz (Gesalatz), Galipentzu, Auza eta Iraitzoz (biak ere Ultzaman), Baztan, Rada (Murillo el Cuende) eta San Martin Unx-eko inguruetan. Beste lau proiektu ibai-sistemen habitata errekonstratuko dute Baztan-Bidasoa ibaian, Areta ibaiaren arroan, *Komunitateko Garrantzizko Leku* gisa zehaztua, Zabalcetako urmaelean, Unciti eta Elorz ibaietan dagoena, eta Bidasoa, Cidacos, Ebro, Leizaran eta Ega ibaietan [Cranak](#) garatzen duen boluntariotzako programaren barnean.

Erabilera publikoa hobetzearen barnean naturguneei balioa emateko hobetzeko proiektuak egingo dira Orgiko naturgunean, Zarrakasteluko Bi



Goicoechea kontseilaria eta 'la Caixa'-ko ordezkari Raúl Marqueta, 2012ko Naturguneen eta gizarteratzeko programa garatzeko hitzarmena sinatzen.

Erreinuen Urmaelean, eta Orbaitzetako Etzangio parajeen. Lokizko mendilerroan eta Iruñerrian ere urmaelak eraiki, zaindu eta hobetuko dira faunaren egoeraren alde egiteko. Azkenik, Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Nafarroako Unibertsitateak eta [Intia](#) enpresa publikoak ikerketako hiru proiektu burutuko dituzte fauna osagarria identifikatzeko, lurzoruaren erabilera iraunkorrerako eta nitrogeno errektiboari lotutako ingurumen-arazoak hautemateko.

2006-2011ko programaren balantzea

2006an, Nafarroako Gobernuak eta "la Caixa" Gizarte Ekintzak "Naturguneen eta gizarteratzeko programa" lankidetzako lehen hitzarmena sinatu zuten, 3 urteko iraupena zuena. Ondoren, hitzarmena 2010 eta 2011n berritu zen.

Lankidetzako 5 urte hauetan zehar, "la Caixa"-k 5.900.000 € inbertitu du eta, horri esker, Nafarroako Gobernuak 65 proiektu gauzatu ditu Nafarroako naturguneetan.

Haren garapenean 73 enpresak eta 380 langilek parte hartu dutela kalkulatu da. Kontratuen % 65a (245) lan-bazterketa egoeran dauden pertsoneri egin zaie (ezindu fisikoak, psikikoak eta gizarteratzeko langileak), hitzarmenaren helburu sozialetan jasotzen denez. Langile horiek ondorengo elkarreetatik zetozen: [Tasubinsa](#), [Josenea](#), [Aspace](#), [Amimet](#) edo [Elkarkide](#), nahiz eta iraupen luzeko langabeen kontratazioa ere sustatu den.

Proiektuek balio izan dute erabilera publikoa naturguneei egokitzeko ([Bertizko Natur Parkeko ibilbide inklusiboa](#) edo [Urederrako Sorburuko sarbideen egokitzapena](#) adibidez), habitat-ak berreskuratzeko ([Belateko Zohikaztegia](#) edo [Salobre eta Jauregiaroztegiko hezegunean](#), esaterako), basoen ingurunean baso-lanak egiteko (suteen prebentziorako [suebaki](#) batzuk, adibidez) edo naturako interpretazio-zentroak berritzeko ([Bertizko Natur Parkean](#) edo [Erronkarin](#), esaterako).